



II. ATALA

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

20/2021 Legearen 2.1 artikulutik eratorritako epe luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren Administrazio Bereziko Arkitekto plaza betetzeko deialdia. Karrerako funtzionarioa izendatzea.

Iragarkia, Bermeoko Udalarena, Administrazio Bereziko Arkitekto plaza betetzeko karrerako funtzionarioa izendatzea 20/2021 Legearen 2.1 artikulutik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren ondorioz.

2024ko abenduaren 12ko 6536 zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez xedatu da:

Lehenengoa: ***3465** NAN zenbakidun Olga Aldaz Carretero arkitektoa karrerako funtzionario izendatzea 2024ko abenduaren 13tik aurrera.

Bigarrena: Funtzionario izendatutako izangaiak hilabeteko epea izango du, izendapena Bizkaiko lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, legez ezarritako zina edo agintza egiteko eta udalbatzako idazkariaren aurrean karguaz jabetzeko. Zinik edo agintzarik ez egiteak edo karguaz ez jabetzeak eskubide guztiak galtzea ekarriko du, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

Bermeon, 2024ko abenduaren 31n. — Alkatea, Nadia Nemeš Shomaly